

EDITORIALA

Babes osoa

Bere irabaziak neurririk gabe handitzeko oztopo bilakatzen den oro zigortu eta ezabatu nahi dute ugazabek. Hala erakutsi digute behin eta berriro, eta halaxe frogatu da gehien bat azken urteotako hazkunde ekonomikoa lagun izan duten garaian. Beste burutazioen artean, horixe da patronalak negoziazio kolektiboan darabilen jarrera. Bere etekinak banatzeko unean berekoikeria da nagusi eta aurre egiteko prestutasuna agertzen duen edonori hortzak erakutsi eta zigor bidean jartzen dute bitarteko guztiak erabili.

Harrigarria bada ere, horixe bera gertatu da oinarria duela sei urte Bizkaiko Hormigoi eta Harrobietako lan hitzarmenaren inguruan sortutako istiluekin. Nola liteke negoziaketa prozesu horretan patronalak legea modu askotara hautsi eta errudunak, aldiz, sektoreko bi militanteak deklaratu? Negoziatio mahaia, legez kanpo, gutxiengo sindikalarekin osatu izana Langileen Estatutuaren araudia bortxatuz; gutxiengo horrekin akordioa sinatzerakoan zilegitasunik ez zuen ituna legezatu nahi izan zuenean; edota horrelako jokamoldearen aurrean, grebara deituaz, bere eskubideak defendatzeko oldartu ziren langileak mehatxatu eta greba ez legezkoa zela iragarri zuen patronala berbera ez al da errudun? Nork hautsi ditu joko arauak, nork negoziatioak behar duen uste ona?

Aginteak topatzen ditu bai, ahaldunen mesederako zirrikitu eta trikimailuak lege ezberdinen hausturak harrapa ez ditzen. Bestalde, bere eskubideak urraturik, lan baldintza duinagoen alde borrokatzeagatik langileak zigortuak izan ohi dira, babesik gabe utzi ohi ditu aginteak. Sindikatua osatzen dugunok, bereziki garbi dugu elkar babesa ezinbestekoa zaigula, hain zuzen aginteak ukatzen diguna lankide artean bakarrik topa dezakegulako. Militanteen epaiketa eta zigorra sindikatu osoarena bilakatzen da eta sindikatuak militanteak babesten ditu. Errebindikazioa ekimen sindikalaren erdian kokatu duen sindikal ereduak jasango ditu honako erasoak, baina militanteak zaindu eta babestuko ditu sindikatuak, babes osoa izango dute.



Concentración de los sindicatos ELA, LAB, CCOO y UGT ante Ajuria Enea

POR LA LIBERTAD SINDICAL

Cerca de dos mil trabajadoras y trabajadores participaron en Gasteiz el pasado 11 de abril en la manifestación convocada por los sindicatos ELA, LAB, CCOO y UGT bajo el lema "Por la Libertad Sindical. Erasorik Ez", en protesta por la actitud del Gobierno vasco, que ha cuestionado la propia razón de ser de los sindicatos para favorecer los intereses de los lobbys de presión económicos.

La iniciativa de ELA, que contó con la presencia de los máximos responsables sindicales, finalizó ante Ajuria Enea con la lectura de un comunicado conjunto en el que se destaca que "ninguna instancia administrativa puede impedir que los sindicatos realicen o lleven adelante sus funciones, por ejemplo defender el derecho de las y los trabajadores a descansar los domingos y festivos". La delegación de ELA estuvo encabezada por Adolfo Muñoz 'Txiki', secretario general adjunto; el secretario general Jose Elorrieta no pudo acudir por encontrarse indispuerto.

Respecto a la reivindicación de descanso en sábados y festivos el comunicado final señala que "las movilizaciones y actos reivindicativos han sido muy numerosos, con un amplio seguimiento de trabajadores/as y ciudadanía en general, y ha contado con el apoyo de asociaciones de pequeños comerciantes y de consumidores".



"Jaurlaritzak bat egin du merkataritza alorreko izen handiekin eta jarduera sindikala oztopatzeko ahaleginetan ari da"

"Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak hartu duen erabakia askatasun sindikalaren aurkakoa da, eta hori oso larria da"

Bizkaiko Cebek patronalak ELAren ekintza sindikala kriminalizatu nahi du

CEBEK JARDUERA SINDIKALA ZIGORTU NAHIEAN

Ekintza sindikala kriminalizatzea, sindikalgintza errebindikatzalea indargabetu eta negoziatio kolektiboa ikaratu asmoz. Hori da Bizkaiko Cebek patronalak lortu nahi izan zuena iragan astean kaleratu zuen prentsa-oharrarekin. Bertan jasotzen zenez epaileak ELAko bi delegatu zigortu ditu Hormigoi eta Harrobien greban langileen lan eskubidearen aurkako delitu batengatik.

Gatazkaren jatorria 2002an kokatzen da, Hormigoi eta Harrobien sektorean Bizkaiko patronalak gutxiengo sindikalarekin hitzarmena sinatu ostean burutu zen greban. Greba amaituta, prozesu penal batean ELAko militanteek espetxe-zigorak ezartzeaz gainera beste asmo bat ere bazegoen, gure sindikatua gatazkan ustez eragindako kalteen erantzukizun zibil subsidiario legez epaitzea. Cebeken prentsa-oharrak, ordea, ez du aipatzen sententzian argi eta garbi geratzen dela ELA sindikatuak gertatu zenaren gaineko inolako ardurarik ez duela.

Greba horretatik hainbat ikasgai ikasi ditu ELAk. Besteak beste soilik sindikalgintza errebindikatzalea dela negoziatio

kolektiboaren arau demokratikoak defendatzeko gai den bakarra. Eta, sei urte hauetan ikusi ahal izan da ere gutxiengoan sinatzeko prest dauden sindikatuak patronalaren esku uzten dituztela hitzarmen kolektiboak, euren legitimitatea auzitan jartzen duten epe laburreko erabaki oportunistak oinarri hartuta.





Como se recordará el Departamento de Hacienda del Gobierno Vasco, a través del Servicio Vasco de la Competencia, exigió a los sindicatos que le remitieran una gran cantidad de información en relación con la campaña que se ha venido realizando a favor del descanso en domingos y festivos. Se requieren, concretamente, informes sobre conversaciones verbales, actas de reuniones de órganos de los sindicatos, acuerdos, negociaciones... todo ello bajo la amenaza de sanción de elevadas cuantías en caso de no cumplimentar la solicitud.

DECISIÓN INQUISITORIAL

Para ELA, la actuación del Servicio Vasco de la Competencia es una acción inquisitorial contra un derecho fundamental como es el de la libertad sindical; un ataque a la propia esencia y función social de los sindicatos.

ELA va a seguir trabajando contra estos ataques. Es un hecho muy grave que el Gobierno vasco haya decidido convertirse en ariete contra la libertad sindical y que amenace con sanciones por el simple hecho de que el sindicato haga lo que la gente que más necesita

espera de él: defender a los trabajadores y trabajadoras ejerciendo la libertad sindical. ELA va a hacer todo lo posible para no permitirlo.

Por el contrario, el fraude fiscal, el de la contratación laboral, los graves incumplimientos respecto de la seguridad y salud laboral, la especulación en la vivienda, las enormes carencias sociales, etc... todos ellos parecen ser problemas ajenos a su responsabilidad. "Hay una enorme degradación de los responsables políticos cuando se dedican a atacar una actuación sindical absolutamente normal en vez de corregir desequilibrios sociales. Esto los califica".

"SE HA PRETENDIDO CRIMINALIZAR LA ACCIÓN SINDICAL"

La patronal vizcaína Cebek hizo pública la semana pasada una nota de prensa en la que destacaba que dos delegados de ELA habían sido condenados por un delito contra los derechos de los trabajadores en el conflicto de Hormigones y Canteras de Bizkaia del año 2002.

Es preciso recordar que el origen de este litigio se sitúa en la negociación del convenio colectivo de Hormigones y Canteras de Bizkaia del año 2002. La patronal Cebek, rompiendo todas las reglas de juego de la negociación colectiva, montó una mesa de negociación, claramente ilegal, con sindicatos que no llegaban al 25% de representación. Posteriormente firmó un acuerdo en minoría, pretendiendo convertirlo en convenio colectivo. Tras la convocatoria de huelga por la mayoría que no avalaba el acuerdo, la patronal proclamó que la huelga era ilegal. En fin, un cúmulo continuado de incumplimientos flagrantes de las propias reglas que marca la negociación colectiva.

No se cita en la nota que la sentencia declara, sin lugar a dudas, que no existe responsabilidad alguna de ELA en los hechos acaecidos en la huelga, tal y como se había pretendido.

Respecto de los militantes acusados, ELA ha tenido muy clara la defensa de los mismos, amparando y protegiendo-

les a lo largo de todo este proceso. La previsión de un riesgo cierto de prisión para los mismos, ha motivado que ELA haya prestado la cobertura económica necesaria a las dos personas acusadas con el fin de evitarlo.

Esta actuación de criminalización selectiva de la acción sindical, del sindicato en definitiva, ha perseguido la neutralización del sindicalismo reivindicativo y amedrentarlo en la negociación colectiva. El transcurso del tiempo desde el 2002 hasta hoy, nos ha confirmado que sólo el sindicalismo reivindicativo es capaz de defender las normas democráticas de la negociación colectiva. Muy al contrario, los sindicatos que acceden a firmas en minoría dejan los convenios colectivos en manos de la patronal, a cambio de oportunismos de corto recorrido además de su propia deslegitimación.

A continuación se incorpora la nota pública hecha por ELA en respuesta a la nota de Cebek:

1.- El origen de este contencioso se sitúa en el año 2002, en la huelga que tuvo lugar en el sector de Hormigones y Canteras como consecuencia de la firma de un convenio en minoría por parte de la patronal de Bizkaia. Al concluir la huelga, en el curso de un proceso penal, se pretendió, además de la condena a penas de cárcel para mili-

tantes de ELA, que se declarara a nuestro sindicato responsable civil subsidiario de los supuestos daños causados durante el conflicto.

2.- La sentencia a la que hace referencia Cebek declara de manera inequívoca la inexistencia de responsabilidad alguna del sindicato ELA en los hechos acaecidos.

3.- Por otro lado, ELA ha defendido, amparado y protegido a sus militantes; y en ese sentido, ha prestado la cobertura económica necesaria a las dos per-

sonas acusadas con el fin de evitar cualquier riesgo de prisión que se pudiera derivar para ellos.

4.- ELA recuerda que como consecuencia de las acciones de criminalización selectiva que puso en marcha la patronal Cebek contra militantes de ELA y contra el propio sindicato, tomó la decisión de abandonar el CRL. Para ELA los motivos que dieron origen a aquella decisión –ruptura de reglas de juego en la negociación colectiva– se mantienen vigentes en su totalidad.



Representantes de ELA y LAB explicarán la problemática del sector en el Parlamento

LOS TRABAJADORES/AS DE TELEMARKETING LLEVAN SU LUCHA AL PARLAMENTO EL 17 DE ABRIL



El 17 de abril, a las 12 del mediodía, representantes de ELA y LAB comparecerán en el parlamento vasco para exponer la lucha de las trabajadoras de Telemarketing en defensa de la negociación de un convenio de la CAPV, en lugar del estatal de miseria que se les aplica en la actualidad. Coincidiendo con esta comparecencia, ELA y LAB han convocado una nueva jornada de huelga en el conjunto del sector y una concentración de una hora en las puertas del parlamento.

El objetivo de esta comparecencia es solicitar a los grupos parlamentarios que tramiten una proposición no de ley en la que se reclame al Gobierno vasco la promoción de la negociación de las condiciones del Telemarketing en la CAPV.

Tal como explica Mirari Irure, "se trata de un sector muy importante, del que el propio Gobierno vasco es usua-

rio destacado, con servicios públicos tan trascendentes como SOS Deiak y Tráfico". "Entendemos que las instituciones públicas responsables de unos servicios públicos que se realizan a través de trabajadores de Telemarketing no pueden lavarse las manos en este conflicto; al menos, deben instar a sus subcontratas a constituir la mesa de negociación y sentarse a hablar".

El 17 de abril será la décima jornada de huelga de este colectivo de trabajadoras a los que se les aplica un convenio que les condena a salarios de poco

más de 800 euros, trabajando 39 horas semanales, incluidos fines de semana y festivos.

Por otra parte, y dentro de las paros y movilizaciones que están protagonizando los trabajadores y trabajadoras de Telemarketing en el conjunto de la CAPV, el jueves 10 de abril se concentraron ante la sede de BBK en Gran Vía 30, Bilbao.

Aproximadamente un 65% de la plantilla está participando de manera activa en esta lucha sindical, que se prolonga ya casi un año.

Telemarketing alorreko langileek euren aldarrikapenak Eusko Legebiltzarrera eramango dituzte apirilaren 17an; lan baldintzak duintzeko borrokan EAerako lan hitzarmen propioa eskatzen dute langileek, egungo hitzarmen estatala eskasa, txarra eta urria delako

LAN SEGURTASUN ETA OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Apirilaren 28a Lan Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko eguna da. Hori dela eta ELAk hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako. Aurten gaixotasun profesionalak eta mutuak dira ELAk aztertuko dituen gai nagusiak. Ekitaldi nagusiak Bilbon eta Iruñean izango dira. Apirilaren 25ean, ostirala, Bilbon izango da ekitaldia, Ayala antzokian, goizeko 10:00tan. Bertan lan osasun arduradun Janire Dominguezek eta idazkari nagusi Jose Elorrietak hartuko dute parte. Hitzaldien ostean manifestazio batek Ayala eta Confebask-ek Gran Vian duen egoitzak lotuko ditu.

Iruñeako ekitaldia, berriz, apirilaren 28an izango da, astelehena. Anaitasuna pabilioiak hartuko du goizeko ekitaldia, 09:30etatik aurrera. Janire Dominguezek gain, Adolfo Muñozek, idazkari nagusiaren albokoak, eta Mitzel Lakuntzak, Nafarroako koordinatzaileak, hitz egingo dute. 11:30etan Iruñeako Epaitegien aurrean izango da kontzentrazioa.

Janire Dominguezek aurtengo leloaren zergatia azaltzen du. "Kontuan hartu behar dugu lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak sarritan kudeatzen dituztenak mutualitateak eta aurre-zaintzako zerbitzuak direla. Horrek hainbat ondorio dakartza. Mutualitateek, osasunari baino gehiago, diru- eta aurrezki-kontuei begiratzen diete. Ezin ditugu ahaztu ere, mutualitateen praktika txarrak: zenbait lanbide-gertakizun ez onartu, behar bezala sendatu baino lehenagoko altak eman, tratamendu egokirik ez eman, gaixotasun arruntaren bajak neurritz gainezka kontrolatu... Egoera hau jendaurrean salatu behar dugula uste dugu, langileen interes eta eskubideen aurka doalako".

ELA ha organizado actos en Bilbao e Iruñea con motivo del Día de la Seguridad y Salud en el Trabajo

● HUELGA INDEFINIDA EN ONDULINE INDUSTRIAL

Los trabajadores de Onduline Industrial han decidido por unanimidad convocar huelga indefinida a partir del 14 de abril. Onduline Industrial es una empresa situada en Gallarta que cuenta con 50 trabajadores y trabajadoras, y es conocida por el producto Onduline bajo teja.

Onduline Industrial ha doblado su producción a lo largo del 2007 y ha visto durante los años 2004, 2005 y 2006 perder peso de los salarios respecto al total de gastos en tres puntos. A pesar de esta situación de bonanza económica la empresa se mantiene en una oferta económica de incremento de IPC, incluso inferior a lo pactado en años anteriores, y pretende no negociar en lo referente al tóxico, penoso y peligroso, así como el régimen de 5º turno que se ha establecido desde el 1 de enero del 2007.

La parte social pretendemos que la mejora en la producción tenga un efecto sobre los salarios con incrementos del IPC + 1'75, se contemple el carácter tóxico penoso del trabajo, así como un plus de 5º turno de 150 euros.

● ELKARTASUNA ARIZNABARRA EGOITZAKO LANGILEEKIN

Apirilaren 10ean ELAko 300 ordezkari manifestazioa egin zuten Gasteizen Ariznabarra Egoitzako langileen alde, greban 53 egun bete baitituzte. Manifestazioa Foru Aldundia- ren aurrean amaitu zen, eta bertan bildutako lagunek dei egin zioten Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzueta- rako diputatu Covadonga Solagureni langileekin bilera egin eta gatazka konpontzeko negoziatioa abian jar dezan.

Ariznabarrako langileek 53 egun bete dituzte greban, eta negoziatioa oraindik ez da hasi. Bitartean, MAPFRE QUA- VITAE enpresak ez du bilerarik egin Enpresa Batzordearekin, eta Solaguren, egoitzako ardu- radun nagusia den aldetik, argi esan du ez duela langile- kin biltzeko asmorik. ELAk kalitatezko zerbitzu publikoak eskatzen ditu, eta horretara- ko, langile horien lan-baldin- tzak parekatu behar dira Aldundiak zuzenean kudea- tzen dituen egoitzetako langi- leen baldintzekin.

'Euskal Herri soziala indartzeko langileak martxan' da ELAk Maiatzaren Lehenerako aukeratu duen leloa

MAIATZAREN LEHENEAN... DENOK BILBORA!

Langile jendearen eguna delako. Patronalek eta gobernuek tratatzen gaituzten moduarekin gure desadostasuna adierazteko. Aberastasunaren bidegabeko banaketa salatzeke. Langileok jasaten ditugun soldatak urriak direlako. Lan merkatuan prekarietatea izugarria delako. Bidegabekeri horien aurka borroka egiteko borondatea berresteko. Gizarte-eredu zuzenago bat exijitzeko. Enpresaburuen zergak gero eta murriztuago daudelako, iruzur fiskalarekiko tolerantzia zabala izanik. Zerbitzu publikoak pribatizatzeko prozesuak aurrera jarraitzen duelako. Hezkuntza eta etxebizitzaren eskaintza txikiegia delako. Menpekotasun-egoerei laguntzeko arreta eskasak direlako. Aurrekontuak superabitaz ixten dituztelako. Aginte politikoak eginiko aukera hau delako: jendearen beharrianak alde batera utzi eta negozio pribatuari ateak ireki. Joko-arauak hautsi eta gutxiengo sindikala balioztatzen dutelako. Askatasun sindikala murrizten dutelako. Sindikatua isilarazi nahi dutelako.

Arrazoi asko dira, bai, baina beste horrenbeste aipatu litezke. Ez dira garai onak langileontzat. Garai gogorak dira. Horregatik, inoiz baina arrazoi gehiago ditugu Maiatzaren Lehenean Bilboko kaleak betetzeko. 'Euskal Herria soziala indartzeko... Langileak martxan!' dio ELAk aukeratu duen leloak. Hainbat modu daude langileak martxan jartzeko, eta horietako bat maiatzaren lehen egunean Bilbora joatea da, errebindikazioak eta jaiak bat egiten duten egunean, hain zuzen.

ELAk militanteok Jesusen Bihotza-ren plazan elkartuko gara goizeko 11:30tan. Bertan Jose Elorrieta idazkari nagusiak gaur egungo egoeraren diagnostikoa egingo digu, hainbat ikuspuntutatik: gizarte-arloa, ekonomia, lana eta politika kontuan harturik. Hitzaldia- ren ostean, gutxi gora behera eguerdiko 12:30tan, manifestazio batek Gran Via eta Plaza Biribila lotuko ditu. Azken urteetan bezala, manifestazioa eskualdeka antolatuko da; eskualde bakoitzak bere aldarrikapenak erakutsiko ditu. Horien artean askok gizarte-ereduarekin lotura izango dute, hori izan baita sindikatuaren azken hilabeteotako kanpaina. Eta, noski, gatazkan dauden enpresak eta sektoreek toki berezia izango dute.

14:00etatik aurrera, manifestazioa amaitu eta gero, Barakaldoko BECn da hitzordua; han, betiko moduan, anaiarteko bazkaria izango da. Jakina denez, bazkaria... eta zerbait gehiago: dantzaldia, haurren parkea, jokoak eta txikientzako gainerako denborapasak...

Bazkari-txartelak eskualde-lokaletan dituzu salgai, eta Bilbora zatoztenentzat autobus-txartelak ere bai. Helduen txartela 16 eurokoa da, eta umeena 8 eurokoa.

Etortzeko hamaika arrazoi daudelako... denok Bilbora!



La situación es dura para la clase trabajadora. Por lo tanto, hay un montón de razones para acudir el Primero de Mayo a Bilbao

www.ela-sindikatua.org

ELA **a**stekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
n° 08/207